

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek ordenantza honen arabera eskatuko du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza udalbarruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

Honako hauek osatuko dute zergapeko egitatea:

1. Bide publikoetatik ibil daitezkeen trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, ibilgailuak edozein mota eta kategoriatakoak direla ere.

2. Zirkulaziorako ibilgailu egokia da matrikulatu beharreko erregistro publikoetan matrikulatu eta horietan bazarik eman ez duen ibilgailua. Zerga honen ondorioetarako, egoki izango dira, halaber, aldi baterako baimena eta turismo-matrikulak dituzten ibilgailuak.

3. Honako hauei ez zaie zerga hau ezarriko:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuei, nahiz eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena izan.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoei, baldin eta euren karga erabilgarria 750 kilogramo baino gehiagokoa ez bada.

4. artikulua.- Salbuespenak eta hobariak

1. Honako hauek ez dute zerga ordaindu behar:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta udal-eta toki-erakundeen ibilgailuak, defentsa edo herritarren babesari atxikitakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta konsulatuen ibilgailuak, eta karrerako agente diplomatiko eta konsulatuetako funtzionario kreditatuenak, kasuan kasuko lurraldeko herritar badira. Ibilgailuak kanpotik identifikatu behar dira, eta salbuespen horrek elkarrekikoa izan behar du, bai hedapenari, bai neurriari dagokionez.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun-sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko anbulantziak eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Arautegi Orokorraren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen pertsonak (mugikortasun-arazoak dituztenak) garraiatzeko ibilgailuak.

Horrez gain, 14 zaldi fiskal baino gutxiago dituzten ibilgailuak ere salbuetsita daude, ezintasunen bat duen norbaiten izenean matrikulatuta baldin badaude, eta soilik ezinduok erabiltzeko badira. Salbuespen hori ezintasun-baldintza horrek iraun bitartean aplikatuko da, bai ezintasuna dutenek gidatutako ibilgailuen gainean, bai ezinduak garraiatzeko xedea duten ibilgailuen gainean.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikagarri izango onuradun diren subjektu pasiboei, ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Idatzi zati honetan xedatutakoa betetze aldera, honako hauek joko dira ezindutzat:

a') Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako ezintasun aitortua duen pertsona, mugikortasun murriztuko ezintasun-egoeran badago. Horrelakotzat joko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun-maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenaren) III. Eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

b') Ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasuna duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') kasuetan aipatzen diren pertsonen, mugitzeko ezintasuna izanda 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoan zehaztutako egoeran badaude, ez zaie 14 zaldi fiskalen muga ezarriko, baldin eta ibilgailua aulki gurpildunarekin erabiltzeko egokituta badago. Hemen aurreikusitako salbuespena araututa dago eta Alkatetzak emandako berariazko administrazio-egintzaren bidez eman behar zaie Derio udalerrian erroldatuta dauden eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboei, azken horiek eskaera egin ondoren. Hain zuzen ere, eskaera horretan adieraziko dira ibilgailuaren ezaugarriak eta, beharrezkoa bada,

matrikula-zenbakia eta onura jasotzea dakarren zergatia. Bestalde, eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Gida-baimenaren fotokopia.

- Ezintasuna egiaztatzen duen agiria eta, bidezkoa bada, mugikortasun murriztuko egoerari dagokiona, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskumendunak edo beste erakunde homologatu batek emandakoa. Dagozkion balorazio-ekipoek emandako hautazko ebazpen teknikoa ez da nahikoa.

- Zinpeko aitortpena, adierazten duena ibilgailua ezintasuna duen pertsonak besterik ez duela erabiliko.

Udal-administrazioak ezintasuna onartu ondoren, emakida egiaztatzen duen agiria emango da.

3/2009 Foru Araua (2010eko urtarrilaren 1ekoa) indarrean sartu aurretik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita zeuden ibilgailuak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauko 2. artikuluko 1. ataleko e) letraren lehengo erredakzioa ezartzen zitzaielako, salbuetsita gelditzeko eskaera berria egin beharko dute, betiere alde zuzenetik ez badute egiaztatu, Udalaren aurrean, aipatu foru-arauaren erredakzio berriak xedatutako betekizunak betetzen dituztela.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Ikuskatze Txartela duten traktore, atoi, erdi-atoi eta makinak.

Salbuetsita egon ahal izateko, Derion erroldatutako interesdunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte euren eskaerarekin batera:

- Gida-baimenaren fotokopia.

- Ibilgailuaren ezaugarrien eta matrikula-zenbakien ziurtagiriaren fotokopia.

- Nekazaritzako izen-ematearen txartelaren fotokopia, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean emandakoa.

Behin Alkatetzak salbuespena adierazita, emakida egiaztatzen duen agiri bat emango da.

Salbuespen hori ezartzea ez da bidezkoa izango udal-administrazioak egiaztatzen duenean nekazaritzako traktoreak, atoiak edo erdi-atoiak nekazaritzakoak ez diren produktuak garraiatzeko erabiltzen direla."

2 Kuotan % 100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienez hogeita hamabost urteko antzintasuna dutenek, fabrikatu ziren datatik aurrera zenbatuta. Bestalde, data hori ezagutzen ez bada, lehenengo matrikulazioaren data edo, bestela, motaren edo aldaeraren fabrikazioa bertan behera utzi zen data erabiliko da.

Halaber, kuotan %50eko hobaria izango dute hogeita hamabost urteko antzintasuna duten ibilgailuek, fabrikatu ziren datatik Aurrera zenbatuta, edo data hori ezagutzen ez bada, lehenengo matrikulazioaren data, edo bestela, motaren edo aldaeraren fabrikazioa bertan behera utzi zen data erabiliko da.

4.3. Guztiz elektrikoak diren ibilgailuek eta soil-soilik eguzki-energiaraz aritzen direnek ibilgailuen gaineko zergaren kuotan %75eko hobaria izango dute.

4.4. Ibilgailu bi modalitatekoek edo hibridoek (motor elektrika-gasolinazkoa, elektrika-diesela, elektrika-gasezkoa) ibilgailuen gaineko zergaren kuotan %60ko hobaria izango dute.

4.5. Ibilgailuen gaineko zergaren kuotan %50eko hobaria, baldin eta ibilgailuak bost jesarleku edo gehiagoko baditu eta titularra familia ugari kidea denean indarreko legeriarekin bat etorritik. Hobari hau aplikatuko zaio ibilgailu bakar bati familia batean. Hobaria izateko betekizun bat izango da Derioko udalerrian erroldatuta egotea.

Halaber, hobaria ez zaie aplikatuko 16 zaldi fiskaleko edo gehiagoko ibilgailuei.

6. Oro har, salbuespenen emakidaren indarraldia eskaera egin eta hurrengo ekitalditik aurrera hasiko da, eta ezin da atzeraeraginik egon. Nolanahi ere den, onura fiskala eskatzen denean likidazioa behin betikoa izan aurretik, eman egingo da, zerga sortzen den datan salbuespena izateko ezarritako betekizunak betetzen badira.

7. Salbuespenetarako eskubidea izateko Udalak aurkeztu beharreko dokumentuak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izango dira.

III. ZERGAPEKOAK

5. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikulua aipatzen dituen erakundeak, zirkulazio-baimenean ibilgailua euren izenean agertzen bada.

IV. KUOTA

6. artikulua

1. Zerga eranskinean jasotako tarifen koadroaren arabera eskatuko da.

2. Ibilgailuen mota zehazteko, aintzat hartuko da araudiak ezarritakoa. Gainera, honako arau hauek ere aintzat hartuko dira:

a) Furgonetatzat joko da turismo-ibilgailu bat pertsonen eta gauzen garraio mistorako egokitzearen emaitza, jarlekuak eta kristalak kentzen badira, ateen tamaina edo kokapena aldatzen bada, edo eratortzen den modeloan funtsezko aldaketarik egin ez bada. Furgonetek turismoen zergak ordainduko dituzte, euren potentzia fiskalaren arabera, honako kasu hauetan izan ezik:

- Lehenengoa: ibilgailuak autobusei dagozkien zergak ordainduko ditu, bederatzita pertsona baino gehiago (gidaria barne) garraiatzeko prest badago.

- Bigarrena: ibilgailuak kamioiei dagozkien zergak ordainduko ditu, 525 kilogramoko karga erabilgarria garraiatzeko baimena badu.

b) Moto-karroak motozikleten parekotzat joko dira zerga honetan; beraz, euren zilindrobolumenaren arabera zergak ordainduko dituzte.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, aldi berean eta modu berezian ordainduko ditu zergak arraste-potentzia eta herrestatutako atoiak zein erdi-atoiak daramatzanak.

d) Euren ahalmena dela eta, matrikulatu behar ez diren ziklomotor, atoi eta erdi-atoei dagokienez, zirkulatzeko egokitzat joko dira Industria-ordezkaritzak dagokion ziurtagiria eman duen unetik aurrera edo, bidezkoa bada, egiazki zirkulatzeko ari direnetik aurrera.

e) Trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek bide publikoetatik garraiatu edo herrestatu ahal dituzten makina auto-propulsatuek traktoreei dagozkien tarifak ordainduko dituzte zerga gisa.

f) Nolanahi ere den, tarifan D) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan, traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak" ere sartzen dira.

g) Auto-karabanekek turismoen zergak ordainduko dituzte. (2013ko ORDENANTZA)

V. ZEGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, ibilgailua lehenengoz eskuratu bada edo bajan eman bada salbu. Horrelakoetan, eskuratzean hasiko da zergaldia, edo Trafiko Buruzagitzan baja ematean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zergaldiaren lehenengo egunean sortuko da zerga.

3. Ibilgailuaren lehenengo eskuraketaren edo behin betiko bajaren kasuetan, kuotaren zenbatekoa hil naturalen arabera hainbanatuko da, eta ibilgailuari Trafiko Zuzendaritzan alta edo baja ematen zaion eguneko hila ere kontuan hartuko da.

Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagatik ibilgailuari aldi baterako baja ematen bazaio, bere kuota arestian azaldutako moduan hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja gertatzen denetik aurrera.

4. Kuotak hainbanatzeko eskubidea izateko, Trafiko Zuzendaritzako ibilgailuen erregistroko jatorrizko baja-dokumentua edo horren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, justifikatu egiten duena hainbanatzen den zergaren ordainketa. Halaber, ibilgailua ostu edo lapurtu ondoren agintaritza eskudunaren aurrean aurkeztutako salaketaren kopia aurkeztu beharko da, halakorik badago.

VI. KUDEAKETA

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den herriko Udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta, halaber, zerga-kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea.

9. artikulua

Udalak auto-likidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal-administrazioak edo finantza-erakunde laguntzaileak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun-egiaztagiria edo ibilgailuaren behin betiko baja eskatzen dutenek zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute aldez aurretik.

2. Betebehar bera izango dute ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari ibilgailuak eraberritu dituztelako berria ematen diotenean, betiere eraberritze horiek zerga honen ondorioetarako ibilgailuen sailkapena aldatzen badute. Beste horrenbeste gertatuko da ibilgailua eskuz aldatzean eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea

aldatzean.

3. Trafikoko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja- edo transferentzia-espeditentak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

13. artikulua

Matrikulazio berririk badago edo, zergen ondorioetarako, ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen bestelako aldaketarik badago matrikulazioaren edo aldaketaren ondorengo 30 egun balioduneko epean, interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte udal-administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko:

- Gidabaimena.
- Ezaugarri teknikoen egiaztageria.
- NANA edo IFZ

VII. XEDAPEN IRAGANKORRA

Trakzio Mekaniko Ibilgailuen gaineko Zerga ezartzen hasten den egunean Zirkulazioaren gaineko udal-zergan hobariren bat dutenek zerga honetan ere dituzten hobari berak izango dituzte, harik eta hobariak indargabe gelditzen den arte. Bestalde, hobarien indarraldia finkaturik ez balego, indargabe deklaratu da 1992ko abenduaren 31tik aurrera.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Zerga araupetzean aurrekontuei buruzko foru-arauetan edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenetan sartzen diren aldaketek, bidezkoa bada, Ordenantza Fiskal honen aldaketa tazitua eragingo dute.

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2018ko urriaren 23an eginiko bilkuran aldatu da, bere indarraldia 2019ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo bertan behera uztea ebatzen den arte. Ordenantza Fiskal hau zati batean aldatuz gero, aldatzen ez diren artikuluek indarrean jarraituko dute.

ERANSKINA

A) Turismoak:	
- 8 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	30,18
- 8 eta 11,99 zerga zaldi bitartekoak	73,43
- 12 eta 13,99 zerga zaldi bitartekoak	121,51
- 14 eta 15,99 bitartekoak	144,73
- 16 eta 19,99 zaldi-fiskal bitartekoak	174,16
- 20 zerga-zaldi baino gehiagokoak	195,81
B) Autobusak:	
- 21 plaza baino gutxiagokoak	161,69
- 21 - 50 plaza	230,26
- 50 plaza baino gehiagokoak	287,84
C) Kamioiak:	
- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak	82,06
- 1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	161,69
- 3.000 eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	230,26
- 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	287,84
D) Traktoreak:	
- 16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	34,30
- 6 eta 25 zerga-zaldi bitartekoak	53,90
- 25 zerga-zaldi baino gehiagokoak	154,47
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak:	
- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak	34,30
- 1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarrikoak	53,90
- 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	161,69
F) Gainerako ibilgailuak:	
- Ziklomotoreak	8,57
- 125 cm ³ -ra bitarteko motozikletak	8,57
- 125 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	14,70
- 250 eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	29,40
- 500 eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	58,80
- 1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak	117,58